




## FUNTSEZKO JARDUERA

Horrelako proiektu bat abian jarri ahal izateko urratsik garrantzitsuenetako bat enpresan ezarriko ditugun jarduerak aztertzea da, horrela, guztia jakin ondoren, behar ditugun langileak kontratatu ahal izateko, beharrezko baldintzak betez. Gure kasuan, dena ondo aztertu ondoren, funtsezko hiru jarduera aurkitu ditugu gure proiektuari bide eman ahal izateko: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak.

Gure enpresak pilulak puskatuko dituen makina txiki bat egingo du, eta, horrela, pertsona guztiek izango dute pilulak hartzeko erraztasun hori, normalean haur txikiek edo pertsona helduek. Lehenik eta behin, langile azkarrak eta esperientziadunak beharko ditugu, gure produktua ekoizten lagunduko digutenak, produktu eraginkor eta ekonomiko bat eskaini ahal izateko, hori baita gure lehentasunetako bat.

Egin beharko dugun ezinbesteko beste gauzetako bat arazoak konpontzea da. Horrek esanahi asko izan ditzake. Hasteko, eta aurreko urratsari erreferentzia eginez, prest egon beharko dugu (bai guk, bai gure langileek) gure produktuen ekoizpenean edozein akats edo arazori aurre egiteko, hau da, edozein atzerapen edo produktu gaizki eratua saihesteko. Gainera, gure online webguneari esker, oso erraz jarriko gara harremanetan gure kontsumitzaileekin, eta, horrela, haien produktuekin sortzen zaizkien arazo guztiak konpondu ahal izango ditugu, bai zalantzak erantzun, bai itzulketak onartu. Ziur asko, gure langileen kuotekin eta soldatekin ere arazoak konpondu beharko ditugu, adibidez: soldata atzeratuak. Orain arte aipatutako guztian eraginkortasuna izateko, eremu bakoitzeko espezialistak kontratatu beharko ditugu, ahalik eta arazo gutxien aurkitzeko gure bidean zehar.

Amaitzeko, egin beharko dugun azken funtsezko jarduera plataforma edo webgunea kudeatu da. Horretarako, wix.com-eko zerbitzu bat kontratatuko dugu, web-garapenerako plataforma bat, erabiltzaileei HTML5 webguneak eta linean arrastatzeko eta askatzeko tresnak erabiliz webgune mugikorrek sortzeko aukera



ematen diena. Beraz, argi dago atal honetan gure zeregina webgunea zaintzea eta editatzea eta gure produktuak bertan salgai jartzea izango dela.

Beraz, lehen aipatutako hiru jardueretan eskumena izango dugu, baina bakar batean kontratatu beharko ditugu beste enpresa baten zerbitzuak, plataforma edo sareko kudeaketan.